

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### NEKAZARITZA SAILA

**Diputatuen Kontseiluaren 46/2016 Foru Dekretua, ekainaren 21ekoa, onartzen dituena nekazaritza, ingurumen eta klima laguntzak eta nekazaritza ekologikoko laguntzak arautzen dituzten oinarriak, 2015-2020 aldirako EAEko Landa Garapenerako Programaren baitan; baita laguntza lerro horren 2016rako deialdia ere**

Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 25eko 21/2010 Foru Dekretuaren bidez onartu ziren Arabako Lurralde Historikoan nekazaritza eta ingurumen arloko laguntzak emateko arauak, EAEko Landa Garapen Iraunkorreko 2007-2013 aldirako Programaren babespean. Geroago, apirilaren 5eko 29/2011, otsailaren 19ko 6/2013, martxoaren 11ko 14/2014 eta maiatzaren 19ko 30/2015 foru dekretuen bidez aldatu zen hura.

Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren bidez (LGENF) landa garapenari laguntzeko Kontseiluaren 1698/2005 (EE) Arautegiarekin bat etorritik, foru dekretu honen bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapen Iraunkorreko 2007/2013 Planaren neurriak garatu dira 2007tik 2013ra bitartean; izan ere, plan hori Europar Erkidegoen Batzordeak hala erabakita onartu zen eta haren kudeaketa Arabako Foru Aldundiari zegokion.

Honako arautegi hauek aldarrikatu dira: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1305/2013 Arautegia, 2013ko abenduaren 17koa, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren bidez landa garapeneko laguntzari buruzkoa dena eta Kontseiluaren 1698/2005 (EE) Arautegia indargabetzen duena; Batzordearen 808/2014 (EB) Exekuzio Arautegia, 2014ko uztailaren 17koa, arautegi horren aplikazio xedapenak ezartzen dituena; eta Batzordearen 807/2014 (EB) Arautegi Ordezkatua, 2014ko martxoaren 11koa, 1305/2013 (EB) Arautegia osatzen duena. Arautegi horien bidez, landa garapenaren aldeko politika bultzatzen da eta, era berean, estatukideei eskatzen zaie gutxienez LGENFren laguntza osoaren ehuneko 30 erabil dezaten klima aldaketa apaltzeko landa garapenari eta ingurumen alderdiei buruzko programan. Zerbateko hori hauetan erabiliko da: nekazaritza, ingurumena eta klimari dagozkionak ordaintzen, nekazaritza ekologikoa sustatzen, natur mugak edo beste era bateko muga jakinak dituzten zonetan, basogintza lanak ordaintzen, Natura 2000 zonetakoak ordaintzen eta klima aldaketarekin eta ingurumenarekin zerikusia duten inbertsioak laguntzen.

Aurreko 2007-2013 plangintzaldian bezala, abian jarri beharreko neurriak planifikatu behar dira, gorago aipatutako Batasunaren arautegietan ezarritakoaren arabera, eta, ondorio horiei begira, Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko 2015-2020ko Programa prestatu da, planifikazio hori jasoz. Europako Batzordeak programa onartu du Batzordeak programa berrazterteko hartutako 2015eko maiatzaren 26ko erabaki bidez. Programa hori lehentasunezko premien inguruan egituratu da; izan ere, premiok jasota daude landa ingurunea osatzen duten eremuen egoerari buruzko diagnostikoan, aurre egin beharreko helburuen eta ildo estrategikoen aukeraketan eta, azkenik, behar besteko finantzaziorekin abian jarri beharreko neurri eta jarduketan hautaketan.

Aurreko guztiak berekin dakar foru dekretuen bidez Arabako Lurralde Historikoan nekazaritza ustiatzekin eta landa guneen garapenarekin erlaziorik zuzenena duten neurriak argitaratzeko beharra, zeregin hori Arabako Foru Aldundiaren eskumena baita.

Foru dekretu honek ingurumeneko eta nekazaritzako eta klimako laguntzak eta nekazaritza ekologikoko laguntzak garatzen ditu. Laguntza horiek Euskadiko Landa Garapenerako 2015-2020ko Programaren baitan M10 eta M11 neurri gisa identifikatuta daude, eta Landa

Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak (LGENF) eta Arabako Foru Aldundiak finantzatzen dituzte, lehenak ehuneko 75ean eta bigarrenak ehuneko 25ean.

Neurri hauen helburuak ingurumena eta klima mesedetzen dituzten nekazaritza jarduerak bultzatzea eta nekazaritza ekologikoko jarduerak eta metodoak –Kontseiluaren 2007ko ekainaren 28ko 834/2007 Arautegian (EE) definituak– hartzeko edo mantentzeko konpromisoa hartzen duten nekazariari edo nekazari elkartei bideratzen zaizkien laguntzak garatzea dira.

Horregatik, Nekazaritza Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bileran gaia aztertu eta onartu ondoren, honakoa

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Ingurumeneko eta nekazaritzako eta klimako laguntzak eta nekazaritza ekologikoko laguntzak arautzen dituzten oinarriak onartzea, Euskal Autonomia Erkidegoaren Landa Garapenerako 2015-2020ko Programarekin bat etorri eta 2013ko abenduaren 17ko 1305/2013 Arautegian (EB) ezarritako mugekin, foru dekretu honen eranskinaren arabera.

Bigarrena. 2016ko laguntzen deialdia onartzea, jarraian zehaztutakoaren arabera:

- Nekazaritza eta ingurumeneko eta klimako neurria (M10):
  - Ekoizpen integratua, (Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako 2015-2020ko Programaren M10.1.1 azpineurria).
  - Bertako animalien arrazak kontserbatzea, (Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako 2015-2020ko Programaren M10.1.3 azpineurria).
  - Biodibertsitatea hobetzeko erlezaintza, (Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako 2015-2020ko Programaren M10.1.4 azpineurria).
  - Mendiko larreen aprobetxamendua kudeatzea, (Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako 2015-2020ko Programaren M10.1.5 azpineurria).
- Nekazaritza ekologikoko neurria (M11):
  - Nekazaritza ekologikora bihurtzea, (Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako 2015-2020ko Programaren M11.1 azpineurria).
  - Nekazaritza ekologikoa mantentzea, (Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako 2015-2020ko Programaren M11.2 azpineurria).
- Epea eta tokia: laguntza eskaerak aurkezteko epea eskaera bakarra aurkezteko ezarri dena da. Eskaera Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren nekazaritzako eskualde bulegoetako edozeinetan aurkeztuko da.

Ordainketa bakarraren eskaerak aurkezteko epe hori luzatuz gero, berez eta besterik gabe beste horrenbeste luzatuko da laguntza lerro honetarako eskaerak aurkezteko epea.

– Kreditu erreserba: 634.912,76 euro, 40.1.01.42.01.479.00.03 “Nekazaritza eta ingurumeneko neurriak” partidaren kontura, Arabako Foru Aldundiaren 2016rako gastuen aurrekontuaren barruan.

Kreditu horiek zenbateko gehigarriekin handitu ahal dira, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuz onartutako Diru laguntzen Lege Orokorraren Arautegiaren 58. artikuluan ezarritako mugekin, baita aurrekontu partidaren edozein arrazoi dela bide gerta daitekeen kreditu gehikuntzaren bidez ere.

– Gehieneko laguntza kopurua nekazaritza ustiategi bakoitzeko: 2016ko deialdi honetan begira 18.000,00 euro ezartzen dira gehienez, nekazaritza ustiategi bakoitzeko, eskatutako neurriak gorabehera. M10.1.3 “Bertako arrazen kontserbazioa” azpineurriko laguntzak arraza bat baino gehiagotarako eskatuz gero, gehieneko kopurua gehitu ahal izango da, honela:

- 2.000,00 euroraino, eskatzen den bigarren arrazako animalientzat.
- Aurrekoz gain, beste 1.000,00 euro, eskatzen den hirugarren animalientzat.

Hirugarrena. Nekazaritzako foru diputatuari ahalmena ematea honako foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko eta, zehazki, honako oinarri arautzaile hauen kontra nahiz urteko deialdien ebazpenaren kontra jartzen diren berraztertze errekurtsu guztiak ebazteko.

Laugarrena. Foru dekretu honen aurka doazen maila bereko edo beheagoko xedapen guztiak indargabetzea, bereziki, honako hauek:

Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 25eko 21/2010 Foru Dekretua, Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 5eko 29/2011 Foru Dekretua, Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 19ko 6/2013 Foru Dekretua, Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 11ko 14/2014 Foru Dekretua eta Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 19ko 30/2015 Foru Dekretua.

Bosgarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko ekainaren 21

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Nekazaritzako foru diputatua*

**EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO**

*Nekazaritza zuzendaria*

**ALFREDO SÁEZ DE CASTILLO BELTRÁN DE OTALORA**

## ERANSKINA

### 1. artikulua. Xedea

1.1 Foru dekretu honen xedea da Arabako Lurralde Historikoan nekazaritza eta ingurumeneko eta klimako laguntzak eta nekazaritza ekologikorako laguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzea.

1.2 Laguntzen araubide hau honetara bideratuta dago:

- a) Landa eta nekazaritza paisaia kontserbatzea, hobetzea eta dibertsifikatzea bultzatzeko.
- b) Biodibertsitatea mesedetzen duten eta ingurumena eta animalien ongizatea errespetatzen dituzten ekoizpen sistemak eta jarduerak sustatzea.
- c) Nekazaritzako biodibertsitatea zaintzea.
- d) Uraren eta luraren kudeaketa hobetzea.
- e) Nekazaritzan eta basogintzan karbonoa harrapatzea sustatzea.
- f) Nekazaritzan, abeltzaintzan eta basogintzan sortzen diren azpi produktuak kudeatzea eta balorizatzea.

1.3 Neurri hauetarako laguntza lerroak ezartzen dira:

- Nekazaritza eta ingurumena eta klima (M10): neurri honen barruan, nekazaritzako us-tiategietan eta beste azalera batzuetan nekazaritza eta ingurumeneko eta klimako konpromi-soak modu boluntarioan sinatzen dituzten nekazariak edo nekazari elkarteak konpentsatzeko laguntzak sartzen dira, l. eranskinean azpineurri gisa arautzen direnak.

– Nekazaritza ekologikoa (M11): neurri honetan, Kontseiluaren 2007ko ekainaren 28ko 834/2007 Arautegian (EE) definitzen diren nekazaritza ekologikoko jarduerak eta metodoak hartzeko edo mantentzeko konpromisoa hartzen duten nekazarietzako edo beraien elkarteentzako laguntzak sartzeko dira. Jarduera eta metodo horiek azpineurri gisa arautzen dira I. eranskinean.

## 2. artikulua. Definizioak

Foru dekretu honi aplikatuko zaizkio II. eranskinean jasotako definizioak.

## 3. artikulua. Onuradunen betekizunak

Laguntza hauen onuradun izan ahalko dira betekizun orokor hauek eta azpineurri bakoitzean I. eranskinean ezartzen diren betekizun bereziak betetzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoak.

### 3.1 Pertsona fisikoak:

a) Arabako Lurralde Historikoko Nekazaritzako Ustiategien Erregistroan inskribatutako nekazaritza ustiategi baten titularra edo titularkidea izatea.

b) Zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan edukitzea.

c) 18 urte beteta izatea eta 65 urte bete gabe izatea, konpromisoaren lehenengo urterako laguntza eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean.

d) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete direla frogatzea.

e) Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak izapidetutako zehapen edo itzulketa prozedura batean ez egotea.

f) Ez ezarri izana administrazio zehapenik ez zehapen penalik sexua dela-eta diskriminazioa eragin izanagatik, eta ez ezarri izana debeku hau emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legearen ondorioz (4/2005 Legea, otsailaren 18koa).

g) Eskaera bakar bat egitea.

### 3.2 Pertsona juridikoak edo ustiategi elkartuak:

Sozietate zibilen, titulartasun partekatuen eta ondasun erkidegoen gisako ustiategi elkartuak edo bestelako pertsona juridikoak izanez gero:

a) Eskatzaileak aurreko 3.1 artikuluan a), d), e), f) eta g) letrek pertsona fisikoei ezarritako baldintzak bete beharko ditu.

Sozietate zibilak, titulartasun partekatuen eta ondasun erkidegoak izanez gero, kide guztiek 3.1.d) artikuluan ezarritako baldintza bete beharko dute.

b) Zerga egoitza eta egoitza soziala Arabako Lurralde Historikoan izatea.

Ondorio horietarako, betekizun hori betetakotzat joko da pertsona juridikoaren erakundearen helbidea eta zerga helbidea Arabako Lurralde Historikoan egoteaz gain, baldin eta bazkide guztien erdiaren (ehuneko 50) eta, aldi berean, sozietatearen kapitalaren gutxieneko ehuneko 50eko partaidetza duten bazkideen erakundearen helbidea eta zerga helbidea ere Araban badago.

c) Ustiategiko kideek 18 urte beteta izan beharko dituzte eta 65 urte bete gabe, laguntza eskaera aurkezteko epea amaitzen denean. Betekizun hori betetakotzat joko da, helbide eta zerga helbideari buruz artikuluan honen 3.2 b) letran zehaztutako irizpidea betetzeaz gain, baldin eta bazkide guztien erdiak (ehuneko 50) eta, aldi berean, sozietatearen kapitalaren gutxieneko ehuneko 50eko partaidetza duten bazkideek betetzen badute.

d) Beste pertsona juridiko batzuen partaidetza duten pertsona juridikoei dagokienez, sozietatearen osaera adierazi behar dute, kide diren pertsona fisiko guztiak identifikatuta; horrez

gain, horietako bakoitzak ustiategi onuradunaren kapitalean zein ehuneko daukan adierazi behar dute.

e) Nortasun juridikorik gabeko sozietateek ezin dute honelako laguntzarik jaso; salbuespena: jaraunspen erkidegoek jaso dezakete, baldin eta sei urtean gutxienez indibiso mantentzeko ituna egin bada. Sozietate zibilen kasuan, eskritura publiko bihurtutako agirien bidez osatuta egongo dira. Halaber, ezin dute honelako laguntzarik jaso makineria erabiltzeko kooperatibek (MEK).

f) Kooperatibek Euskal Autonomia Erkidegoko Kooperatiben Erregistroan izena emanda egon beharko dute.

#### **4. artikulua. Baldintza eta konpromiso orokorrak**

4.1 Nekazaritza eta ingurumeneko eta klimako eta nekazaritza ekologikoko konpromisoak bost urtez hartzen dituzten onuradunei laguntzak emango zaizkie. Horiek I. eranskinaren arabera azpineurrietako bakoitzean zehaztuta daude.

M11.1 “Nekazaritza ekologikora bihurtzea” azpineurrian, konpromisorako epea bihurketak irauten duen denborara murriztuko da.

Lurzatiak, aprobetxamenduak eta animaliak erregistro ofizial egokietan inskribaturik egon behar dira.

4.2 Laguntzaren hasierako eskaeran, eskaera egileak laguntza eskatu duen azpineurriaren konpromisoak sinatuko ditu. Konpromiso horiek 5 urte iraungo dute eta nekazaritza eta ingurumeneko kontratuztat joko dira ondorio guztietarako. Konpromisoen denboraldia amaitutakoan, eta araudi egokiak eta aurrekontuak ahalbidetzen baldin badute, laguntza urtebetez luzatzeko eskaera egin ahalko da.

4.3 Nekazaritza eta ingurumeneko kontratua indarrean dagoen hurrengo urteetan, konpromitutako azpineurriaren prima ordaintzeko eskaera egin beharko du urtero.

4.4 Nekazaritza eta ingurumeneko eta klimako eta nekazaritza ekologikorako neurrietarako laguntzek bakarrik estaliko dituzte gai hauetan ustiategi osorako exijitutako baldintzak baino baldintza handiagoak ezartzen dituzten konpromisoak:

– Baldintzak betetzea

– Ekainaren 7ko 112/2011 Dekretuak, zeinen bidez onartzen baita Nekazaritza lanetan Egoki Jarduteko Kodea, nekazaritzako nitrato kutsadura jasateko arriskupeko gunetzat jo ez diren Euskal Autonomia Erkidegoko gunetarako, (2011-06-20ko EHAA, 116. zk.), ongariak erabiltzeko arautzen dituen gutxieneko betekizunak.

– Fitosanitarioak erabiltzeko gutxieneko betekizunak. Betekizun horiek irailaren 14ko 1311/2012 Errege Dekretuak, produktu fitosanitarioen erabilera iraunkorra lortzeko jarduketa eremua ezarri zuenak (2012-09-15eko EAO, 223. zk.), arautzen ditu.

4.5 Onargarrtasun baldintzak eta azpineurri bakoitzean definitutako konpromiso espezifikoak betetzea, konpromisoaren urteetan zehar. Ondorio horietarako, konpromiso mota hauek ezartzen dira, oro har:

– Oinarrizko egoera: ustiategi osoan bete behar diren gutxieneko arauak.

– Konpromiso baztertzaila: oro har, emakidan ezarritako irizpideak/betekizunak errespetatzen ez dituen ez betetzea izango da eta, egokia bada, laguntza mantentzea.

– Oinarrizko konpromisoa: konpromiso bat, zeina ez betetzea lortu nahi diren helburuetan ondorio esanguratsuak eragiten dituen, ondorio horiek urte bete baino gehiago irauten dutenean edo ondorio horiei bitarteko onargarriekin amaiera ematea zaila denean.

– Konpromiso nagusia: konpromiso bat, zeina ez betetzea lortu nahi diren helburuetan ondorio garrantzitsuak eragiten dituen, ondorio horiek urte bete baino gutxiago irauten dutenean edo ondorio horiei bitarteko onargarriekin amaiera ematea ezinezkoa denean.

– Konpromiso sekundarioa: aurreko definizioei egokitzen ez zaiena.

#### 4.6 Abere zama eta ALUa kalkulatzeko.

Ustiatetikiko abere zama kalkulatzeko, zenbatzen den ganaduaren zentsua ustiatetikian deialdiaren aurreko urteko irailaren 1etik deialdiaren urteko abuztuaren 31ra arte dagoena izango da, hilabeteen arteko batezbesteko gisa kalkulaturik. Abere zama zehaztutako ALUen eta ustiatetikiko bazka azalerako hektareen arteko zatidura izango da.

4.7 Azpineurri ezberdinetan laguntzak jaso ditzaketen lursailak, laboreak eta aprobetxamenduak Lurzatiaren Identifikazio Geografikoko Sistemaren indarrean dauden erabilerekin arabera definitutakoak izango dira, eta Arabako lurralde historikoan kokatuta egongo dira.

### 5. artikulua. Konpromisoak bihurtzea edo egokitzea

5.1 Nekazaritza eta ingurumeneko konpromisoen bihurtzea edo egokitzea onartu ahalko da indarrean dauden denboraldian, baldintza hauek betetzen badituzte:

– Bihurtzea onura garrantzitsua baldin bada ingurumenarentzat edo animalien ongizatearentzat.

– Indarrean dagoen konpromisoa modu esanguratsuan finkatzen bada.

– Egokitzapena behar bezala justifikatuta badago, jatorrizko konpromisoaren helburuak betetzea kontuan izanik.

Egokitzapenak, bestalde, konpromisoaren iraupena luzatzeko izan daitezke.

5.2 Aurreko programazio alditik, 2007-2013, datorren nekazaritza eta ingurumeneko kontratu bat indarrean daukaten onuradunek kontratu hori subrogatu ahalko dute laguntza neurrien baldintza berrietara, aurreko kontratutik falta zaizkien konpromiso urteak bakarrik betetzeko moduan.

### 6. artikulua. Ustiatetikien transferentzia

6.1 Nekazaritza eta ingurumen kontratua indarrean dagoen bitartean ustiatetikien titulartasuna osorik edo zati batez aldatzen bada, onuradunak berehala jakinarazi beharko dio Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailari.

6.2 Ustiatetikien titulartasuna aldatuz gero, hartutako nekazaritza eta ingurumeneko konpromisoari jarraipena eman gabe, konpromisoa ezeztatuko da eta jasotako laguntzak Foru Ogasunari itzuli beharko zaizkio, legezko interes egokiek batera, laguntzak jaso ziren momentutik aurrera kalkulaturik.

6.3 Konpromisoaren aldiaren onuradunak bere ustiatetia osorik edo zati batean beste pertsona bati eskualdatzen badiu, azken horrek konpromisoari eutsi ahalko dio betetzeke geratzen den aldiaren.

### 7. artikulua. Konpromisoetatik salbuesten duten ezinbesteko gertaerak

7.1 Ezinbesteko kasua dagoela, edo laguntza jasotzean hartutako konpromisoak ez betetzea justifikatzen duten salbuespeneko inguruabarrak daudela, ulertuko da ondoko kasu hauetan:

a) Onuraduna hiltzea.

b) Onuraduna lanbiderako luzaro ezinduta egotea.

c) Ustiatetikiko lurretan eragin handia izan duen hondamendi natural larria.

d) Ustiatetikiko edo abeltzaintzako eraikinak istripuz suntsitzea.

e) Epizootia edo landare gaixotasuna, ustiategiko abere edo labore guztietan edo batzuetan eragina dutena.

f) Ustiategi osoa edo zati handi bat desjabetzea, baldin eta ezin izan bazen desjabetze hori aurreikusi konpromisoa hartu zen egunean.

7.2 Inguruabar horiek idatziz jakinarazi beharko zaizkio Nekazaritza Sailari. Idazkiarekin batera, agintari eskudunarentzat nahikoak diren froga egokiak erantsi beharko dira, onuraduna edo eskubideduna hala egiteko egoeran dagoen egunetik aurrera hamar asteguneko epean. Ondorio horietarako, larunbata ez da asteguna.

7.3 Inguruabar horiek gertatzen direnean, ez da administrazio zehapenik ezarritako, eta urte anitzeko konpromiso edo ordainketen kasuan, ez da exijituko aurreko urteetan jasotako laguntza itzul dadila.

## 8. artikulua. Kontrolak

8.1 Onuradunek foru dekretu honetan eta haren garapen arauetan ezarritako baldintzak bete behar dituztela egiaztatzeko, Nekazaritza Sailak beharrezko administrazio kontrolak, lurraldearen gaineko kontrolak eta baldintzei buruzko kontrolak egingo ditu, betiere Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1306/2013 (EB) Arautegiak, Batasunaren nekazaritza politikaren finantzazio, kudeaketa eta jarraipenarenak, eta 640/2014 Arautegi Ordezkatuak ezarritakoarekin bat etorritako eta 809/2014 Exekuzio Arautegiak xedapen aplikagarriak aintzat hartuz.

8.2. Onuradunak baimenduko ditu Arabako Foru Aldundiak ustiategian agindutako ikus-kanpen bisita guztiak eta ezinbestean eman beharko du laguntzaren gainean eskatutako informazio guztia.

## 9. artikulua. Murrizketak eta zehapenak, adierazitako unitateen eta animaliekin erlazionatutako neurriek ezarritako artean desadostasunik egonez gero

Egindako kontroletan ez betetzerik atzemanen gero, indarreko arautegiak ezarritako honako murrizketak, zehapenak edota itzulketak aplikatuko dira:

9.1 Inola ere ez da laguntzarik emango laguntza edo ordainketa eskaeran aipatutako animalia kopurua baino animalia kopuru handiago batengatik.

9.2 Laguntza edo ordainketa eskaera batean adierazitako animalia kopurua handiagoa baldin bada administrazio kontroletan edo lekuan bertan egindako kontroletan ondorioztatutakoa baino, zenbatutako animalia kopuruaren arabera kalkulatu da laguntza.

9.3 Adierazitako eta zehaztutako animalia kopuruak ezberdinak direnean, kopuruaren arteko kendura zehaztutako animalia kopuruarekin zehaztuko da, neurriz gain adierazitako kopuruaren portzentajea ezartzeko.

$$\text{Neurriz gain adierazitakoaren portzentajea} = \frac{\text{Adierazitako animalia kopurua} - \text{Zehaztutako animalia kopurua}}{\text{Zehaztutako animalia kopurua}} \times 100$$

· Ez betetzeak ez badagozkie 3 animalia baino gehiagori, laguntzaren zenbatekoa neurriz gain adierazitako kopuruaren portzentajearen murriztuko da.

· Irregularitasunek 3 animalia baino gehiagori eragiten badiete, laguntzaren zenbatekoa kopuru hauetan murriztuko da:

– Neurriz gain adierazitako kopuruaren portzentajea ez bada ehuneko 10 baino handiagoa, neurriz gain adierazitakoaren portzentajearen murriztuko da.

– Portzentajea ehuneko 10 baino gehiago bada baina ehuneko 20 edo gutxiago bada, laguntza neurriz gain adierazitakoaren portzentajearen bikoitza murriztuko da.



– Zehaztutako portzentajea ehuneko 20 baino handiagoa bada laguntza ukatuko da.

– Portzentajea ehuneko 50 baino handiagoa bada laguntza ukatuko da. Gainera, onuradunak zehapen gehigarri bat dauka. Beraren kopurua adierazitako animalien kopuruaren eta zehaztutako animalien kopuruaren arteko aldea izango da. Zehapen horien ondoriozko zenbatekoak kenduko dira 1305/2013 (EB) Arautegian edo 1307/2013 (EB) Arautegian ezarritako laguntza neurrien kontura egindako laguntzen ordainketatik, hau da, aribideko urtean edo irregulartasuna atzeman denetik aurrerako hiru urteetan zehar onuradunak aurkezten dituen eskaerengatik eskuratzen duen eskubidearen arabera laguntzen ordainketatik. Zenbatekoa ezin bada guztiz kendu ordainketa horietatik, gainerako saldoa ezeztatuko da.

9.4 Aipatutako zehapenak ez dira aplikatuko baldin eta onuradunak ezin baditu bete onargarritasun irizpideak, konpromisoak edo beste betebeharrak batzuk, bere abere taldean eragina duten inguruabar naturalen ondorioz, baldin eta agintari eskudunei idatziz jakinarazi badie, bere animalia kopurua murriztu dela jakin eta hurrengo hamar astegunetan. Kasu bakoitzean kontuan izan behar diren inguruabar zehatzak gorabehera, agintari eskudunek animalia taldearen bizitzako inguruabar natural gisa onartu ahalko dituzte ondoko hauek:

– Animalia bat gaixotasun baten ondorioz hiltzea, edo

– Animalia bat istripu baten ondorioz hiltzea, baldin eta onuraduna istripuaren arduraduna ez bada.

9.5 Laguntza ez bada animalia kopuruaren arabera ezartzen, baizik eta azienda larriko unitateen arabera, unitate horiek hartu ahalko dira kontuan artikuluko hau aplikatzearen ondorioetarako.

#### **10. artikulua. Murrizketak eta zehapenak, adierazitako azalaren eta azalerarekin erlazionatutako neurriek ezarritakoen artean desadostasunik egonez gero**

Egindako kontroletan ez betetzerik atzeman ez gero, indarreko arautegiak ezarritako honako murrizketak, zehapenak edota itzulketak aplikatuko dira:

10.1. Zehaztutako azalera eskaeran adierazitakoa baino handiagoa dela egiaztatzen denean, adierazitako azalera hartuko da aintzat, laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko.

10.2 Adierazitako azalera zehaztutakoa baino handiagoa dela egiaztatzen denean, neurritz gairik adierazpena dagoela ulertuko da. Halakoetan, laguntza kontrolean zinez zehazten den azalaren arabera kalkulatu da. Neurritz gain adierazitako kopurua kontuan hartuz, behar diren murrizketak eta zehapenak ezarriko dira. Neurritz gairik adierazitakoaren ehuneko formula honen arabera kalkulatu da:

$$\text{Neurritz gain adierazitakoaren portzentajea} = \frac{\text{Adierazitako azalera} - \text{Zehaztutako azalera}}{\text{Zehaztutako azalera}} \times 100$$

10.3 Gerta daiteke zehaztutako azalera osoaren eta neurri baterako ordainketa eskaeran adierazitako azalera osoaren arteko aldea 0,1 hektareakoa edo handik beherakoa izatea; halakoetan, zehaztutako azalera eta adierazitakoa baliokidetzat joko dira. Baldintza hori ez aplikatuko, baldin eta aldea azalera osoaren ehuneko 20tik gorakoa bada.

10.4 Gerta daiteke adierazitako azalaren eta zehaztutako azalaren arteko aldea ehuneko 3tik edo bi hektareatik gorakoa izatea, baina zehaztutako azalaren ehuneko 20koa edo handik beherakoa; halakoetan, laguntza kalkulatu da zehaztutako azalaren oinarri hartuz, baina egiaztatutako aldearen halako bi murriztuta.

10.5 Gerta daiteke aldea zehaztutako azalaren ehuneko 20tik gorakoa izatea; halakoetan, ez da inolako laguntzarik emango azalarengatik.



10.6 Gerta daiteke aldea zehaztutako azaleraren ehuneko 50etik gorakoa izatea; halakoetan, ez da inolako laguntzarik emango azalerarengatik. Gainera, onuradunari zehapen gehigarria ezarriko zaio; zehapen hori adierazitako azaleraren eta zehaztutako azaleraren arteko aldeari dagokion laguntzaren zenbatekoaren berdina izango da. Zehapen horien ondoriozko zenbatekoak kenduko dira 1305/2013 (EB) Arautegian edo 1307/2013 (EB) Arautegian ezarritako laguntza neurrien kontura egindako laguntzen ordainketatik, hau da, aribideko urtean edo irregularitasuna atzeman denetik aurrerako hiru urteetan zehar onuradunak aurkezten dituen eskaerengatik eskuratzen duen eskubidearen arabera laguntzen ordainketatik. Zenbatekoa ezin bada guttiz kendu ordainketa horietatik, gainerako saldoa ezeztatuko da.

10.7 Azalerarengatik laguntza neurrien nekazaritza lursail guztien azalaren adierazpen osatugabeaz ezarritako zehapenak, honako aldea hartuko da aintzat: batetik, eskaera bakarrean adierazitako azalera orokorraren eta, bestetik, adierazitako azalera orokor hori eta adierazi ez diren nekazaritza lursailen azalera orokorra batuta lortutakoaren arteko aldea.

Alde hori adierazitako azalera orokorraren gaineko ehuneko 3tik gorakoa denean, azalarengatik laguntza neurrien zenbateko osoa honako mailen arabera murriztuko da:

- a) Kopurua ehuneko 3tik gorakoa bada baina ehuneko 25ekoa edo handik beherakoa, ehuneko 1eko murrizketa aplikatuko da.
- b) Kopurua ehuneko 25etik gorakoa bada baina ehuneko 50ekoa edo handik beherakoa, ehuneko 2ko murrizketa aplikatuko da.
- c) Kopurua ehuneko 50etik gorakoa bada, ehuneko 3ko murrizketa aplikatuko da.

10.8 Ezarritako zehapenak ez zaizkie aplikatuko laguntza edo ordainketa eskaeren zatiei, baldin eta onuradunak agintaritza eskudunari idatziz jakinarazten badio eskaera ez dela zuzena edo zuzena izateari utzi diola eskaera aurkeztua izan ondoren; hori hala izango da, onuradunari jakinarazi ez bazaio agintaritza eskudunak lurrean bertan kontrola egiteko asmoa duenik edota agintaritza horrek ordurako adierazi ez badio laguntza edo ordainketa eskaeran ez betetzeak izan direnik.

10.9 Halaber, laguntza eskaera bat aurkezten bada deialdi bakoitzean finkatutako mugagunaren ondoren, horrek berekin ekarriko du ehuneko 1eko murrizketa ezarri beharra atzerapenaren egun baliodun bakoitzeko, betiere onuradunak eskaerak finkatutako epean aurkeztutako eskaerengatik eskubide gisa izan zitzakeen zenbatekoei dagokienez. Atzerapen hori hogeita bost naturaletik gorakoa bada, eskaera ez da onartuko eta onuradunari ez zaio laguntzarik emango.

#### **11. artikulua. Murrizketak eta zehapenak, baldintzekin zerikusia duten ez betetzeengatik**

Baldintza erregimenaren arauetan ez betetzerik egonez gero, laguntzen zenbatekoak murriztuko dira abenduaren 19ko 1078/2014 Errege Dekretuak ezarritakoarekin bat zehaztu beharreko kopuru baten arabera; izan ere, dekretu horren bidez zenbait baldintza arau ezartzen dira, hala nola zuzeneko ordainketak, landa garapenaren aldeko urteko zenbait prima edo nekazaritza eta abeltzaintza sektoreari laguntzeko zenbait programaren ondoriozko ordainketak jasotzen dituzten onuradunek bete beharrekoak. Murrizketa ezin bada zehaztu ordainketa egin aurretik, onuradunak ordaindu beharreko zenbatekoa etorkizuneko ordainketetatik berreskuratu edo konpentsatu ahal izango da. Azken kasu horretan, ez dira aintzat hartuko sortutako interesak.

#### **12. artikulua. Murrizketak eta zehapenak, onargarritasun irizpideak eta beste konpromiso edo betebehar batzuk ez betetzeagatik**

12.1 Ez betetze orok laguntza lerroan murrizketak edo ukapenak ekarriko ditu. Kontuan izango da ez betetzearen proportzionaltasuna, erabakitzeaz azalera edo animalia zehatz batean bakarrik eragiten duen. Kasu horretan, murrizketa ustiategiaren zati horretan aplikatu beharko da. Hala ez bada, ustiategi osoari egotzi beharko zaio.

12.2 Eskatutako laguntza osorik ukatuko da baldin eta onargarritasun irizpideak ez badira ustiategi osoan betetzen.

12.3 Eskatutako laguntza gutxitu edo ukatuko da, hemen adierazten denaren arabera, baldin eta 4-5 artikuluan tipifikatutako konpromisoak edo beste betebeharrak ez badira betetzen. Laguntza gutxitzeko portzentajea zehazteko, ez betetzearen larritasuna, norainokoa, iraupena eta errepikapena kontuan izango dira.

- Oinarrizko egoera ez betetzea: laguntza ukatzea.
- Konpromiso baztertzaila bat ez betetzea: laguntza ukatzea.
- Oinarrizko konpromiso bat ez betetzea: laguntza ehuneko 50ean murriztea. Oinarrizko konpromiso bat konpromisoaren aldi berean ez bada berriro betetzen, laguntza ukatu egingo da.
- Konpromiso nagusia ez betetzea: laguntza ehuneko 20an murriztea. Ez betetzeak behin eta berriro gertatzen badira, ehuneko 40ko murrizketa aplikatuko da konpromiso bat betetzen ez den bigarren urtetik aurrera.
- Bigarren mailako konpromisoa ez betetzea: laguntza ehuneko 5ean murriztea. Ez betetzeak behin eta berriro gertatzen badira, ehuneko 10eko murrizketa aplikatuko da konpromiso bat betetzen ez den bigarren urtetik aurrera.

12.4 Konpromisoaren aldi konprometitutako azalera edo ALUen gehieneko kopurua mantendu ezean, murrizketa hauek aplikatuko dira:

MURRIZKETA		
* GUTXIPENAREN PORTZENTAJEA AZALERARI EDO KONPROMETITUTAKO ALUEN GEHIENeko KOPURUARI DAGOKIENEZ	EZ BETETZEAREN LEHEN URTEA	EZ BETETZEAREN 2. URTEK AURRERA
ehuneko 10 < gutxipena ≤ ehuneko 40	ehuneko 20	ehuneko 40
ehuneko 40 < gutxipena ≤ ehuneko 60	ehuneko 50	ehuneko 100
ehuneko 60 < gutxipena ≤ ehuneko 100	ehuneko 100	ehuneko 100

\* Gutxipenaren portzentajea = (hauen bien arteko aldea: konprometitutako azaleraren edo ALUen gehieneko kopurua, eta onargarritasun baldintzak, oinarrizko egoera eta konpromiso baztertzailak betetzen dituzten azalera edo ALUen kopurua), konprometitutako azalarekin edo ALUen gehieneko kopuruarekin zatituta eta 100ekin biderkatuta. Nolanahi ere, konprometitutako gehieneko azalera edo ALUak mantentzea behin eta berriro ez betetzeak ez du ekarriko aurreko urteetan jasotako kopuruak itzultzea.

12.5 Konpromiso bat baino gehiago behin baino gehiagotan betetzen ez direnean, haietako bakoitzari aplikatu ahal zaizkien murrizketak gehituko dira.

12.6 Onargarritasun betekizunak, oinarrizko egoera edo nekazaritza eta ingurumeneko konpromisoak ez badira betetzen eta horren ondorioz ordainketa eskaera ukatzen bada, edo laguntzaren ordainketaren eskaera ez bada aurkezten, ordura arte eskuratutako laguntzak Arabako Foru Ogasunari itzuli beharko zaizkio, legez aplikatu beharreko interesekin batera, baldin eta egoera horietakoren bat konpromiso aldi zehar bi kanpainatan gertatzen bada.

### 13. artikulua. Nahita egindako ez betetzeak

Nahita egindako ez betetzetat hartuko dira onuradunak laguntza bat eskuratzeko beharrezko baldintzak artifizialki sortu dituela agerian jartzen dutenak, betiere neurriaren helburuen kontrako abantaila lortze aldera. Kasu hauetan, onuraduna zegokion laguntza jasotzetik baztertuko

da; konpromisoaldi horretako aurreko ekitaldietan jaso dituen zenbatekoak itzuli beharko ditu, interes egokiekin batera.

#### **14. artikulua. Murrizketen, zehapenen eta ukoen ordena**

Ez betetzeek murrizketen, zehapenen eta ukoen metaketa eraginez gero, horiek guztiak modu mailakatuan aplikatuko dira aurreko zenbatekotik abiatuz eta honako ordena honen arabera:

- Neurritz gain adierazitakoarengatik egiten diren murrizketak eta zehapenak.
- Onargarritasun irizpideak eta beste konpromiso edo betebehar batzuk ez betetzeagatik ukatzea.
- Eskaera epetik kanpo aurkezteagatik murrizketak.
- Ustiategiaren azalera osoa ez adierazteagatik murrizketak.
- Konpromisoak ez betetzeagatik murrizketak egitea.
- Baldintzekin zerikusi duten ez betetzeagatik murrizketak.

#### **15. artikulua. Laguntzaren kalkulua. Kopuruak**

15.1 Laguntza hauetan, onuradunei urteko prima bat ordainduko zaie nekazaritza eta ingurumeneko kontratuaren indarraldiko urteetan. Prima hori azpineurri bakoitzean definituta dago. Laguntza horiek sinatutako konpromisotik eratorritako kostu gehigarriak eta diru sarrerengalerak estaliko dituzte (lortu gabeko irabazia). Nekazaritza eta ingurumeneko neurri guztiengatik jaso daitekeen gehieneko kopurua ezin da izan, azalera berbererako, kopuru hauek baino handiago:

- 600,00 euro/Ha urteko laboreetarako, ortuko laboreak izan ezik. Azken kasu horretan, gehieneko zenbatekoa balio handieneko azpineurrian adierazitakoa izango da.
- 900,00 euro/Ha labore iraunkorrenzat.
- 450,00 euro/Ha lurren beste erabilera batzuetarako.
- 200,00 euro/ALU desagertzeko arriskua duten bertako animalia arrazetarako.

15.2 Azpineurri bakoitzeko laguntzaren kalkulua I. eranskinean zehazten da.

15.3 Sozietate zibilen, titulartasun partekatuen eta ondasun erkidegoen gisako ustiategi elkartuei edo bestelako pertsona juridikoei dagokienez, gerta daiteke bazkide edo kide guztiek ez betetzea 4.1.b eta 4.1.c artikuluan egoitzaren eta adinaren baldintzak; halakoetan, laguntza murriztuko da baldintzak betetzen ez dituztenen partaidetzaren proportzio baliokidean, behin 4.2.c eta 4.2.d artikuluan ezarritako ehuneko 50eko betekizuna egiaztatu ondoren.

15.4 Egindako kalkulutik eratorzen den laguntzak ez badu gainditzen 300,00 euroko zenbatekoa, eskaera hori ezetsi egingo da.

#### **16. artikulua. Laguntza eskaerak**

16.1 Urtero laguntzen deialdia onartuko da; haren barruan honako hauek jasoko dira:

- Deialdiaren neurriak eta azpineurriak.
- Deialdia ebazteko erreserbatzen diren kredituak.
- Eskaerak aurkezteko epea eta tokia.
- Laguntzaren gehieneko zenbatekoa, ustiategiko eta azpineurriko, egotekotan.

16.2 Laguntza eskaerak eskaera bakarrean jasoko dira, horretarako finkatutako datekin bat etorritik. Eskaera epea automatikoki luzatu ahal izango da eskaera bakarra egiteko epea luzatzen den heinean; era berean, eskaerekin batera 17. artikuluan zerrendatzen den dokumentazioa aurkeztu beharko da.

16.3 Laguntza eskaerak edo bestelako adierazpenak guztiz edo zatiz ken daitezke idatziz edozein momentutan. Agintaritza eskudunak onuradunari ez betetzeak daudela jakinarazi badio edo lurrean bertan kontrol bat egiteko asmoa duela ohartarazi badio edo lurrean bertan egindako kontrol batek ez betetzeren bat agerian jarri badu, ez da onartuko ez betetzeak ukitutako dokumentu horien jakinarazpenak kentzea.

16.4 Onuradunak aurkeztutako laguntza eskaerak edota bestelako ziurtagiriak edozein momentutan zuzendu eta aldatu ahal izango dira ordainketaren aurretik, baldin eta agintaritza eskudunak kasu zehatzaren ebaluazio orokorraren gainean onartutako ageriko akatsik badago eta onuradunak fede onez jardun badu.

16.5 Laguntza eskaera bakoitzean, datuak zuzen betetzeaz gain, eskatzailearen adierazpen bat aurkeztuko da; adierazpen horretan honakoak jasoko dira:

- Laguntza emateko baldintzak ezagutzea.
- Hala badagokio, ea eskatutako neurriarekin ezin batera daitekeen bestelako laguntzaren baten hartzaila den.

16.6 Laguntzen arteko bateraezintasunak, l. eranskinean deskribatuak, errespetatu beharko dira.

#### **17. artikulua. Eskaeraren dokumentazioa**

17.1 Diru laguntza eskatzeko betekizunak, betekizun horiek egiaztatze modua eta aurkeztu beharreko dokumentazioa, behean izaera orokorrarekin adierazten direnez gain, foru dekretu honetan azpineurri bakoitzerako ezarritakoak dira:

- Behar bezala betetako eta sinatutako eskaera formularioak, aplikazio informatikoak berriaz sortutakoak.
- NANaren edo IFZren fotokopia.
- Hirugarrenen fitxa, hori eduki ezean.

17.2 Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean daudela ziurtatzen duen agiria.

Laguntza eskaera aurkezteak berekin dakar eskatzaileak Nekazaritza Sailari baimena ematea zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean dagoela adierazten duen ziurtagiria zuzenean eskuratzeko. Dena den, eskatzaileak berriaz adierazita uka dezake baimen hori, eta berak aurkeztu beharko ditu eskakizun horiek betetzen dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak.

Hori dela eta, 18/1997 Foru Dekretuan xedatutakoa aplikatuko da (otsailaren 11koa, beste honek partez aldatua: 58/2004 Foru Dekretua, urriaren 5ekoa, diru laguntzen onuradunek zerga betebeharrak betetzen dituztela egiaztatze prozedurari eta egiaztatze betebeharrak salbuesteko araubideari buruzkoa).

17.3 Eskatzailea pertsona juridikoa bada, eraketako estatutuen eta, egonez gero, horien aldaketen fotokopiak.

17.4 Edonola ere, Foru Aldundiak beretzat gordetzen du dekretu honetan ezarritako laguntzak eskatzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoei beharrezko deritzon dokumentazio osagarria eskatzeko eskubidea, eskaerak behar bezala baloratu ahal izateko.

17.5 Eskabideetan akatsik dagoela edo daturik falta dela antzematen bada, organo izapidetzaileak, hala dagokionean, interesdunei eskatuko die eskabidean galdatutako betekizunen gaineko akatsak zuzentzeko edo eskatutako dokumentuak bidaltzeko, 10 egun balioduneko epean, jakinarazpena jasotzen den egunaren hurrengotik zenbatzen hasita, larunbatak kontuan hartu gabe. Jakinarazpen horretan berriaz adieraziko da, eskatutakoa bete ezean, eskabidea

ezetsiko dela, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, administrazio publikoen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 42. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

### 18. artikulua. Izapidetzea

18.1 Eskaerak aurkezteko epa amaituta, espedienteak Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuak izapidetuko ditu.

18.2 Espedientea izapidetzen den bitartean, laguntzaren organo kudeatzaileak behar dituen argibide eta agiri gehigarriak eskatu ahal izango ditu, ebazpen proposamena egiteko xedearekin beharrezko diren datuak zehaztu eta egiaztatzeko. Interesdunak, izapide hau betetzeko jarduera ezean erortzen bada, ezinbestean bete beharko du azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, administrazio publikoen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 76.3 artikuluan xedatutakoa.

18.3 Foru dekretu honetan ezarritako laguntzak norgehiagoka prozedura bidez emango dira. Aurrekontu zuzkidura nahikoa ez badago laguntzak eskuratu ahal izateko betekizunak betetzen dituzten eskaera guztiei erantzuteko, ondoko lehentasun taldeak ezartzen dira:

1. EAeko Landa Garapenerako 2015-2020 Programaren babespean konpromisoak indarrean dauzkaten eskaerak, deialdi egokiaren urtean aurkeztuak, laguntza eman den urtean emandako kopuruko gehieneko kopuruarekin.

2. Deialdi egokiaren urtean aurkeztutako eskaera berriak.

3. Konpromisoak indarrean dauzkaten eskaerak, aurreko bi taldeetan dauden kopuruen aldean gertatzen diren kopuru handikuntzengatik.

18.4 Aurreko ataleko lehentasun irizpideak aplikatu ondoren kreditua ez bada nahikoa taldeetako baten eskaerei erantzuteko, kreditua agortzen den taldearen barruan laguntzak emango dira, eskaerak puntuazio handienetik txikienera baloratuz, irizpide hauen arabera:

1. Natura 2000 sarea: Natura 2000 zonen eragina duten udalerrri batean dauden ustiategiak: 15 puntu.

2. Zonakatzea: udalerrria oztopo naturalekin edo beste oztopo espezifiko batzuekin izendatuta egotearen arabera diskriminatuko da:

Mendialdeak: 15 puntu.

Zona behartsua, mendialdean ez dagoena: 10 puntu.

Beste zona batzuk: 5 puntu.

3. Monolaborantza daukaten udalerrriak: labore bakar bat (belardikoa ez dena) nagusi den udalerrriak, ENAren ehuneko 80 baino gehiago izateraino, diskriminatuko dira: 15 puntu.

Espedienteak puntuatu ondoren hainbanaketa bat egingo da, eta horri koefiziente bat aplikatuko zaio, espedienteari esleitutako puntuazioaren eta esleitu ahal den gehieneko puntuazioaren arteko zatidura izango dena.

18.5 Laguntza hauek balioetsiko dituen kide anitzeko organoa ondoren aipatzen diren pertsonen edo, beharrezkoa balitz, beraiek ordeztu dituztenek osatuko dute; hona hemen:

- Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuaren burua.
- Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuaren teknikaria.
- Nekazaritzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren burua.
- Administrazio Kudeaketa Atalaren burua.

Foru dekretu honetan ezartzen ez diren kasuei eta zirkunstantziei dagokienez, balorazioko kide anitzeko organoak bidezkozat jotzen dituen irizpideak aplikatu ahalko ditu modu arrazoi-tuan.

### **19. artikulua. Ebaztea eta jakinaraztea**

19.1 Kide anitzeko balorazio organoaren proposamenez, Arabako Foru Aldundiko organo egokiak ebatziko ditu espedienteak indarrean dagoen legeriari jarraiki, eta horien ebazpenak amaiera emango dio administrazio bideari. Dena dela, administrazioaren aurkako auzi errekurtsua jarri ahalko da administrazio bidearen aurka Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren aurrean, errekurtsu mota hori arautzen duen araudiari jarraiki, aukerako berraztertze errekurtsua jartzeko aukerari kalterik egin gabe.

19.2 Azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, administrazio publikoen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 42. artikuluan ezarritako ondorioetarako, prozeduraren ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik. Epealdi hori igaro eta berariazko ebazpenik eman eta jakinarazten ez bada, eskabidea ezetsi dela esan nahi du, halaxe xedatzen baitu azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, diru laguntzenak, 25.5 artikuluan.

19.3 Laguntzak emateko ebazpenek espediente bakoitzean ezarriko dute zein izango den laguntzaren zenbatekoa eta zein haren finantzazioaren jatorria. Laguntza murriztu edo txikitzen bada edo ebazpen negatiboa badago, arrazoa zehaztuko da, bai eta, hala badagokio, kopurua ere.

19.4 Laguntzaren ebazpena modu indibidualizatuan jakinaraziko da eta, aldi berean, jakinarazpen horrek aurreko atalean adierazitako informazioa jasoko du.

### **20. artikulua. Laguntzen ordainketa**

Laguntzaren egiaztapen eta kontrol propio guztiak egindakoan ordainketa egingo da.

Ordainketa egin ondoren jakiten bada laguntza ematean zeuden inguruabarrak aldatu direla, deialdiaren urtean beste neurri edo laguntza batzuen inguruan egindako kontrolen ondorioz, baldintzak betetzearen ondorioz, eta abar, ordainketa egokia birkalkulatuko da, zehazten diren baldintza berriekekin bat etorritik. Kopuru hori ordaindutakoa baino txikiagoa bada, bien arteko aldea berreskuratu egingo da, hurrengo ordainketa eskaeran jaso beharreko zenbatekoetatik kenduz, egotekotan, edo itzulketa espediente baten bidez.

### **21. artikulua. Onuradunen betebeharrak**

Foru dekretu honetan araututako laguntzen onuradunek honako betebeharrak bete beharko dituzte:

21.1 Emandako laguntza onartzea. Laguntza eman zaiela dioen jakinarazpena jasotzen duten egunetik aurrera, 10 eguneko epean laguntzari uko egiten ez badiote berariaz eta idatziz, onartu egin dutela ulertuko du Administrazioak.

21.2 Foru dekretu honen babespean jasotako laguntzaren inguruan dituzten funtzioak baliatuz, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ogasun sailek, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde ordaintzaileko organo eskudunek, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta Europar Batasuneko organo eskudunek eskatzen duten informazio oro ematea.

21.3 Laguntza zuzen eman dela egiaztatze, behar diren kontrol guztiak gainditzea.

21.4 Diru laguntzen Arautegi Orokorrak 31. artikuluan eta Batzordearen 2014ko uztailaren 17ko 808/2014 (EB) Exekuzio Arautegiak informazioaren eta publizitatearen arloan ezarritako betebeharrak betetzea.

**22. artikulua. Ebazpenaren aldaketa, ez betetzea eta itzulketa**

22.1 Diru laguntzaren xedea betetzen bada, baina diru laguntza emateko kontuan izandako baldintzak aldatzen badira, hura emateko erabakia ere aldatu ahal izango da.

22.2 Onuradunek betetzen ez badituzte hartutako konpromisoak edota foru dekretu honetan eta laguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintzak eta xedea, edo laguntza eskuratzen badute horretarako bete behar diren baldintzak bete gabe, galdu egingo dute laguntza jasotzeko eskubidea, eta dagoeneko diru kopururen bat jaso badute, Arabako Foru Aldundiari itzuli beharko diote, aplikatu beharreko legezko interesak gehituta. Hori guztia ez da oztopo izango bidezko ekintzak aplikatzeko, otsailaren 7ko 3/1997 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoaren diru laguntzen eta transferentzienak, ezarritakoaren arabera.

22.3. Diru zenbateko horiek zuzenbide publikoko diru sarreratzat joko dira legezko ondorioetarako.

22.4 Nekazaritza Sailaren foru agindu bidez erabakiko da diru laguntzaren itzulketa osoa edo horren zati bat, ikuskapen edo kontrol txostena eta itzultzeko proposamena ikusirik, eta onuradunari entzun ondoren.

22.5 Diru laguntza osoa edo zati bat itzultzeko prozeduraz gainera, otsailaren 7ko 3/1997 Foru Arauan ezarritako arau hausteengatik zehapen prozedura abiarazi ahalko da.

**23. artikulua. Araubide juridikoa**

Foru dekretu honetan ezarritako laguntzen onuradunek Arabako Lurralde Historikoko Diru Laguntzei eta Transferentziei buruzko otsailaren 7ko 3/1997 Foru Arauan, Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Diru Laguntzei buruzko Lege Orokorrearen Araudian ezarritako dagoena bete behar dute, bai eta Europako, estatuko eta autonomia erkidegoko gainerako xedapen aplikagarriak ere.

**24. artikulua. Bateragarritasuna beste laguntza batzuekin**

24.1 Dekretu honetan garatzen diren laguntzak bateraezinak izango dira beste erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako beste zeinahi diru laguntzarekin, xede eta helburu berdinek baditu, kontrakoa berariaz arautzen ez bada Europar Batasuneko, estatuko, Euskal Autonomia Erkidegoko edo foruko legerian, edota Euskadiko LGP 2015-2020 egitasmoan.

24.2 Neurriak eta azpineurriak bateraezinak izango dira. Azalerako edo ganaduko unitate bererako ezin izango dira bi prima pilatu kontzeptu ezberdinengatik, baldin eta bateraezintasuna beharrezkoak baina baztertzaileak diren ezaugarriengatik sortzen bada; horretarako, ondoko bateraezintasun koadroa ezartzen da.

NEURRIAK	10.1.1	10.1.3	10.1.4	10.1.5	11.1	11.2
10.1.1 Ekoizpen integratua				X	X	X
10.1.3 Bertako animalia arrazen kontserbazioa						
10.1.4 Biodibertsitatea hobetzeko erlezaintza						
10.1.5 Mendiko larreen aprobetxamenduaren kudeaketa	X				X	X
11.1 Nekazaritza ekologikora bihurtzea	X			X		X
11.2 Nekazaritza ekologikoa mantentzea	X			X	X	

X: lurzati berean bateraezinak diren jarduketak (bateraezintasunak soilik zehaztuko dira lurzatiaren erabilera bi neurrien aplikazioa ahalbidetzen badu)



## 25. artikulua. Laguntzen finantzaketa

25.1 Foru dekretu honetan ezarritako laguntzetara bideratzen diren baliabide ekonomikoak Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailaren eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsetan (LGENF) aurrekontu kredituetatik aterako dira, ehuneko 75eko kopuruan.

25.2 Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailak finantzazio gehigarria eman ahalko du, diru laguntza hauetarako baliabide ekonomikoak handitzera zuzenduta; zenbateko gehigarri hori laguntza nazionaltzat hartuko da, Arabako Foru Aldundiaren aurrekontu kredituen kontura.

25.3 Arabako Foru Aldundiak laguntzaren guztizko zenbatekoa ordainduko dio onuradunari, bai LGENFk finantzatutako zatia, bai Arabako Foru Aldundiak berak finantzatutako zatia. Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsetik (LGENF) datozen laguntzen zatia Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Nagusiak bere erakunde ordaintzailearen bidez ordainduko dio Arabako Foru Aldundiari, urriaren 3ko 194/2006 Dekretuak ezarritakoari jarraituz, dekretu horren bidez Euskal Autonomia Erkidegoaren Erakunde Ordaintzailea eratzen baita. Ordaindu beharreko zenbateko horiek Nekazaritza Sailaren aurrekontu partidetan sartuko dira edo sail horren izenean horretarako irekitako kontuan.

## I. ERANSKINA

### 2015-2020 LGPko M.10: "NEKAZARITZA ETA INGURUMENA ETA KLIMA" NEURRIAN ETA M.11: "NEKAZARITZA EKOLOGIKOA" NEURRIAN DAUDEN AZPINEURRIEN ARAUKETA ESPEZIFIKOA

#### A. M10 neurria, nekazaritza eta ingurumena eta klima

##### A.1 M10.1.1 azpineurria. Ekoizpen integratua

##### A.1.1 Helburua

Azpineurri honen helburua ekoizpen integratua ezartzea eta mantentzea sustatzea da, EAEko ekoizpen integratuan indarrean dagoen araudiaren arabera garatua. Ekoizpen integratuak interes handia dauka, zalantzarik gabe, ekoizpen iraunkorrerako metodo gisa, ingurumena errespetatuz. Horrez gain, elikagaien segurtasuna bermatzen du eta produktuaren osasungarritasuna hobetzen du. Ekoizpen integratuak nekazaritzako metodoak erabiltzen ditu, adibidez landaketa lanak, ongarrantzea, ureztatzea, borroka biologiko edo kimikoa, ez modu sistematikoan baizik eta aurretiazko ebaluazio tekniko baten arabera eta aplikatu beharreko teknika edo tratamenduaren egokitasuna edo desegokitasuna erabakitzen duen diagnostiko baten arabera.

##### A.1.2 Konpromiso espezifikoak

##### A.1.2.1 Onuradunenak.

Onuradunak, nekazaritza eta ingurumeneko kontratua indarrean dagoen aldi osoan, konpromiso hauek bete beharko ditu:

- Konprometitutako azalerak urtero mantentzea
- Konpromiso baztertzailak:

- EAEko ekoizpen integratuari buruz indarrean dagoen araudia betetzea (otsailaren 13ko 31/2001 Dekretua, EAEko ekoizpen integratuari buruzkoa, urriaren 21eko 259/2003 Dekretuz aldatua). Ekintza hau zorrotza da ekoizpen baldintzei eta haiek betetzen diren ala ez kontrolatzeko mekanismoei dagokienez.

- Arau tekniko orokorra betetzeaz gain laguntza eskaera egiteko unean indarrean zeuden ekoizpen orientazio konprometitutakoei buruzko arau tekniko bereziak betetzea.

#### A.1.2.2 Konprometitutako azalerenak

- Hasieran konprometitutako azalera urtero handitu ahalko da. Gehikuntza hau diruz laguntzen bada, konprometitutako azalera berria sinatutako nekazaritza eta ingurumeneko kontratuaren indarraldia amaitu arte mantendu beharko da.

- Ekoizpen integratuko nekazaritzako jardunak mantentzea labore zehatz bati eskaintzen zaion azalera osoan. Horrenbestez, konpromiso hori ez da lurzati finkoetan aplikatuko baizik eta labore finkoetan.

- Nekazaritza eta ingurumen kontratua indarrean dagoen aldi osoan, gutxipen hauek ahalbidetuko dira konprometitutako gehieneko azalera:

- Labore iraunkorretan, gehieneko gutxipena ehuneko 10ekoa izango da.
- Urteko laboreetan, gehieneko gutxipena ehuneko 10ekoa izango da.

#### A.1.3. Onargarritasuneko baldintza espezifikoak.

##### A.1.3.1 Onuradunenak:

- Euskadiko ekoizpen integratuko operadoreen erregistroan izena emanda egotea, Ekoizleen atalean, laguntza eskatzeko epea amaitzen den egunean.

- Ekoizpen orientazio hauetako Arau Tekniko Espezifikoan araututa dauden ekoizpen orientazioetakoren baten ekoizle izatea:

- Mahatsondoa
- Barazkiak: uraza, tomatea, piperra eta zerba.
- Fruta arbolak: kiwia, sagarrondoa.
- Esne behiak.

- Ustiatégian gutxienez azalera hau edukitzea: 1.000 m<sup>2</sup> ekoizpen integratuko barazkigintzarako edo 5.000 m<sup>2</sup> ekoizpen integratuko laboreetarako.

- Elkarte horiek legez eratuta egon behar dira.

##### A.1.3.2 Lurzatienak

- EAEko Ekoizpen Integratuko Operadoreen Erregistroan inskribatuta egotea.

- Mahatsondoaren kasuan, gainera, lurzatiak Arabako Txakolina jatorri deituraren edo Errioxa jatorri deituraren mahasti erregistroan inskribatuta egon behar dira, baita Arabako Mahastizaintzaren Erregistroan ere.

- Zurezko laboreen lurzatiek landaketa erregular homogeenak eduki behar dituzte; ez da onartuko lerrokatzerik ez txertaka isolaturik.

- Laboreen lurzatiek laboreetan ereite erregular eta homogeenak eduki behar dituzte.

#### A.1.4 Gutxieneko arauak

Nekazaritza ustiatégia onuradunek ondoko gutxieneko arau hauek bete behar dituzte (oinarritzko egoera):

- Baldintzetako nekazaritza eta ingurumen baldintza onei dagokienez:

• Ibai, aintzira eta urmaelen ertzetan, urertzetik bost metro zabal den zerrendan, ezin da erabili gai fitosanitariorik. Hala ere, tarte zabalagoa utzi beharko da baldin gai horien etiketan hala ezartzen bada.

• Ibai, aintzira eta urmaelen ertzetan, urertzetik aurrera, lur zerrenda batean ezin da erabili gai fitosanitariorik eta ez dago nekazaritzako ekoizpenik, dagoeneko jarrita dauden zurezko laboreak

izan ezik. Zerrenda horien zabalera gutxienez 3 metrokoa izango da zaurgarritzat jotzen diren zonetan, eta metro batekoa gainerako zonetan.

- Ongarriak erabiltzeko gutxieneko betekizunei dagokienez: ongarriak erabiltzeko betebeharre dagokienez, EAEko zona ez zaurgarrietarako Nekazaritzako Jardunbide Onen Kodean ezarritakoak (112/2011 Dekretua; 116. EHAA, 2011-06-20koa).

- Fitosanitarioak erabiltzeko gutxieneko betekizunei dagokienez (1311/2012 Errege Dekretua; 223. EAO, 2012-09-15ekoa):

- Tratamendu fitosanitarioen erregistroa eguneratuta mantendu behar da.
- Ur masak eta edateko ura ez daitezen kutsatu behar diren neurri guztiak hartuko dira.
- Produktu fitosanitarioak, ontziak eta hondarrak manipulatzeko eta biltegitatzeko beharrezko jarduerak errespetatuko dira.

#### A.1.5 Dokumentazio berezia

Laguntza eskaerari, 17. artikuluan aipatzen den dokumentazio orokorrak gain, ondokoak erantsi beharko zaizkio:

– Eusko Jaurlaritzako ekoizpen integratuko operadoreen erregistroko kide izatearen ziurtagiria.

– Mahatsoaren kasuan, lurzatiak Arabako Txakolina jatorri deituraren edo Errioxa jatorri deituraren mahasti erregistroan eta Arabako Mahastizaintzaren Erregistroan inskribatuta egotearen ziurtagiria.

#### A.1.6 Laguntzaren kopurua

Laguntza honetan, urteko prima bat ematen da ekoizpenera bideratutako hektarea bakoitzeko, onartutako ekoizpen integratuko arauarekin. Hau da kopurua:

LANDAREA	PRIMA EURO/HA
Erremolatxa	224
Hazitarako patata	253
Kontsumorako patata	223
Txakolin mahastiak	594
Arabar Errioxako mahastiak	281

### A.2 M10.1.3 azpineuria. Bertako animalia arrazen kontserbazioa

#### A.2.1 Helburua

Eragiketa honen helburua da desagertzeko arriskuan dauden eta nekazariak EAEko ustiatzietan denboran zehar mantendu dituzten bertako animalia arrazak kontserbatzea eta beraien hazkuntza sustatzea.

#### A.2.2 Konpromiso espezifikoak

##### A.2.2.1 Onuradunenak

Onuradunak, nekazaritza eta ingurumeneko kontratua indarrean dagoen aldian, konpromiso hauek bete beharko ditu:

- Konprometitutako ALUak urtero mantentzea
- Konpromiso baztertzailak:

- Arraza Hobetzeko Programa betetzea, zeina ofizialki onartu baita ekainaren 2ko 81/2015 Dekretuak, euskal arraza autoktonoak kontserbatu, hobetu eta sustatzekoak eta animalia arrazak sustatzen dituzten entitateak arautzekoak, ezarritakoarekin bat etorritik.

- Arraza egokiko azienda larriko unitateen (ALU) gutxieneko kopuru hau konprometitzea (ALUetarako bihurketa 1305/2013 Arautegia (EB) Betetzeko Egintzen 9. artikuluan eta II. eranskinean ezarritakoaren arabera egingo da):

- 2 ALU arraza guztietarako, hegaztiak izan ezik.
- ALU 1 hegaztietarako.

- Konprometitutako ALUak Liburu Genealogiko egokian erregistratuta edukitzea.

– Konpromiso nagusiak:

- Ustiatzean ez gaintzea 2 ALU/ha abere zama urtean, batez beste. Abere zamarako konpromisoa ezin zaie aplikatu Euskal Oiloa, Euskal Antzara eta Euskal Txerria arrazei, ezta Enkarterriko Astoaren lehenengo 8 ALUei ere.

#### A.2.2.2. Konprometitutako ALUenak:

- Urtero gehitu ahalko dira hasieran konprometitutako ALUen kopurua. Konprometitutako ALUen kopuru berria hasieran sinatutako nekazaritza eta ingurumen kontratuaren aldia bukatu arte mantendu behar da, baldin eta gehikuntza hori diruz lagundu bada.

- Konpromisoaren aldi osoan, gehienez ehuneko 10eko gutxipena onartuko da konprometitutako ALUen gehieneko kopuruari dagokionez.

#### A.2.3. Onargarritasuneko baldintza espezifikoak

##### A.2.3.1 Onuradun ustiatzeak:

- Arraza egokien elkarreterako kide izatea eta 2015-2020ko LGPan jasotako arrazetako animaliak edukitzea.

#### A.2.4 Laguntzaren kopurua

Laguntza honetan, ALU bakoitzeko urteko prima bat emango da, eta ganadu mota eta arrazaren arabera kalkulatu da, ALUrako bihurketa II. eranskinean jasotako taularen arabera kontuan izanik, kopuru hauetan:

		PRIMA EURO/ALU
BEHI AZIENDA	Terreña	200
AHUNTZ AZIENDA ARDI AZIENDA	Azpi Gorria Sasi Ardia	156
ZALDI AZIENDA	Pottoka Enkarterriko Astoa	200
	Euskal Herriko Basazaldia	151
HEGAZTIAK	Euskal Antzara	200
	Euskal Oiloa	200
TXERRIAK	Euskal Txerria	200

#### A.2.5 Dokumentazio berezia

Laguntza eskaerari, 17. artikuluan aipatzen den dokumentazio orokorraz gain, ondokoak erantsi beharko zaizkio:

– Laguntza eskatu den arrazako edo arrazetako abereen elkarteko kide izatearen ziurtagiria.

– Liburu genealogikoarekin zerikusia duen informazioa, edo hura eskuratzeko baimena, egokia bada.

A.3 M10.1.4 azpineurria. Biodibertsitatea hobetzeko erlezaintza

A.3.1 Helburua

Azpineurri hori erlezaintza sustatzeko eta mantentzeko hartu da, bai nekazaritzaren eremutik bai erlezaintzaren eremutik, EAEko biodibertsitateari ekarpen handia egiten diolako.

A.3.2 Konpromiso espezifikoak

A.3.2.1 Onuradunenak

Onuradunak, laguntza indarrean dagoen aldian, konpromiso hauek bete beharko ditu:

– Konprometitutako erlauntzak urtero mantentzea.

– Konpromiso baztertzailak:

- Erlategi bakoitzean gehienez 80 erlauntz egongo dira.

- Urtero ustiatze plan bat aurkeztu beharko du, erlauntzak mugitzeko aurreikuspenak barne hartzen dituena (egonaldia; trantsumantzia plana, egokia bada; kokaguneak).

– Oinarrizko konpromisoak:

- Gehienez ere erlauntzen ehuneko 80k egin ahalko dute transhumantzia Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo.

– Konpromiso nagusiak:

- Kokalekuen, mugimenduen eta tratamenduen oharpenak eguneratuta izango ditu.

- Erlauntzak urtean 6 hilabete jarraian, behintzat, egongo dira Euskal Autonomia Erkidegoko leku berean kokatuta, urtarriletik urrira arteko hilabeteetan, bi hilabete horiek barne.

A.3.2.2 Konprometitutako erlauntzenak:

- Urtero gehitu ahalko dira hasieran konprometitutako erlauntzen kopurua. Gehikuntza hau diruz laguntzen bada, konprometitutako erlauntz kopuru berria sinatutako nekazaritza eta ingurumeneko kontratuaren indarraldia amaitu arte mantendu beharko da.

- Konpromisoaren aldi osoan, gehienez ehuneko 10eko gutxipena onartuko da konprometitutako erlauntzen gehieneko kopuruari dagokionez.

A.3.3 Onargarritasuneko baldintza espezifikoak

A.3.3.1 Onuradunek betebeharrak:

- Gutxienez 80 erlauntz eduki behar dituzte, Abere Ustiatzearen Erregistroan inskribaturik.

- Erlezaintzaren antolamenduari buruzko otsailaren 10eko 33/2004 Dekretuan ezartzen diren baldintzak bete.

- Barroasiaren eta horri lotutako gaixotasunen aurkako borroka sistema bat aplikatzea, Abeltzaintza Zerbitzu egokiak agindutakoaren arabera.

- Erlezaintzako elkarte bateko kide izatea edo kanpo aholkularitza tekniko izatea.

- Ezti bereziko erlauntzak edukiz gero (labela edo erlezaintza ekologikoa), kalitate bereizgarri horiek dauzkala frogatu beharko da.

A.3.4 Laguntzaren kopurua

Laguntza urteko prima bat da, erleek nektarra biltzeko erabiltzen duten hektarea bakoitzeko, kontuan izanik erlauntz batek nektarra biltzeko 2 hektarea dauzkala, kopuru hauetan:

	PRIMA EURO/HA
Ezti normala	10,5
Ezti berezia	12,5

Ezti berezia izango da ekoizpen ekologikoaren arauekin ekoizten dena edo "Euskal Ezti – Miel del País Vasco" markaren arautegiaren arabera egiten dena, Eusko Label bereizgarriarekin.

Urteko zenbateko osoa kalkulatzeko, okupazioko hileko batezbestekoak kontuan izango dira, bai erlauntz finkoenak nahiz trantsumantzian daudenak, kontuan izandako urte osoan. Prima jasoko duten erlauntzen kopurua ezin da inola ere izan okupazioaren batezbesteko gisa zehaztutako erlauntzen kopuru osoa baino handiagoa.

#### A.3.5 Dokumentazio espezifikoa

Laguntza eskaerari, 17. artikuluan aipatzen den dokumentazio orokorrak gain, ondokoak erantsi beharko zaizkio:

– Erlezaintzako elkarteko kide izatearen edo kanpo aholkularitza teknikoaren edukitzearen ziurtagiria.

#### A.4 M10.1.5 azpineurria. Mendiko larreen aprobetxamenduaren kudeaketa

##### A.4.1 Helburua

Azpineurri honen helburua mendiko larreen aprobetxamenduaren kudeaketa zuzena egitea da, abeltzaintzaren garapenari lotua eta kudeaketako konpromiso jakin batzuei lotua, mendiko larreek ekoizpen, natur eta paisaia funtzioak batzeko moduan.

##### A.4.2 Konpromisoak

###### A.4.2.1 Onuradunenak

Onuradunek, laguntzaren nekazaritza eta ingurumeneko kontratua indarrean dagoen aldirian, konpromiso hauek bete beharko dituzte:

- Konprometitutako azalerak urtero mantentzea
- Konpromiso baztertzailak:
  - Artzaintza jarduera konpromisorako xede diren titulartasun publikoko lurretan egitea.
  - Larre horien aprobetxamendu tasen ordainketan eguneratuta egotea.
  - Konpromiso aldirian konprometitutako azaleraren ehuneko 10ean gutxienez laboreak egitea. Labore horiek urtero adierazi behar dira, jarduketara plan baten bitartez, eta mendiaren jabea den erakundeak baimendu behar ditu.
  - Larreen kudeaketa plan bat izatea eta betetzea. Larreen kudeaketa planak ondoko baldintzak bete behar ditu:
    - Gutxienez hamabost eguneko indarraldia izan.
    - Lurren titularrak diren erakundeek onartu behar dute eta Arabako Lurralde Historikoko Mendien Kudeaketa Organoak haren aldeko txostena egin behar du.
    - Larreen Kudeaketa Plana dagokion zona osorik edo zati batean Natura 2000 Sareko espazio bat bada, Araba lurralde historikoan sare horren kudeaketaren arduraduna den organoari jakinaraziko zaio.

- Larre iraunkorren erabilera egokia bermatzeko, benetako abere zama 0,2 ALU/ha edo handiagoa eta ALU 1/ha baino txikiagoa izango da. Bestela, benetako abere zama ez bada maila egokietara iristen, ezinbestekoa izango da mantentze lan egokia egitea, larre iraunkorra ez degradatzeko eta sastrakek larrea ez inbaditzeko moduan.

- Gutxienez eduki hauek sartu behar dira:

- Bazkatzeko zonen kokalekuaren mapa, eskala egokian.

- Bazkatzeko azalera osoaren ebaluazioa.

- Abere zama onargarriaren definizioa.

- Animaliak, zein espezieetakoak diren, larreratzeko sarrera eta irteera egutegia.

- Planaren indarraldian urtero egin beharreko jarduketaren plangintza.

- Larreen Kudeaketa Planak ukitutako zona Natura 2000 Sareko espazio bat osorik edo zati batean hartzen bada, espazio horretan kontserbatu behar diren eta plan horren eragina jasan dezaketen elementuen gaineko informazio xehea erantsiko da (habitatak eta espezieak).

- Betebehar hauek sartuko dira:

- Sua ez erabiltzea.

- Birbasotutako eta birsortutako eremuak errespetatzea.

- Kontserbatzeko interesgarriak diren fauna eta flora errespetatuko ditu.

- Horma, harrizko artegi, borda eta artzaintza jardueran ohikoak diren beste elementu batzuk mantenduko ditu.

- Neguan atsedenaldirik bat aurreikustea, larreetako habitatak lehengoratzeko eta animalien osasun kontrola egiteko, administrazio organo eskudunek berariazko baimena eman ezean.

A.4.2.2. Konprometitutako azalerenak:

- Hasieran konprometitutako azalera urtero handitu ahalko da. Gehikuntza hau diruz laguntzen bada, konprometitutako azalera berria sinatutako nekazaritza eta ingurumeneko kontratuaren indarraldia amaitu arte mantendu beharko da.

- Konpromisoaren aldi osoan, gehienez ehuneko 10eko gutxipena onartuko da hasieran konprometitutako azalerari dagokionez.

A.4.3. Onargarritasuneko baldintza espezifikoak

A.4.3.1 Onuradunenak:

- Laguntzaren xede diren lurrak erabiltzeko baimenduta egon behar dira.

- Neurri hau eskatu ahal duten eremuak erabilera publikoko mendietan eta erabilera libreko mendietan dauden lursail publikoak dira.

- Erabilera publikoko mendi edo erabilera libreko mendi bereko adjudikaziodun guztiek neurri hau erabili behar dute.

A.4.4 Laguntzaren kopurua

Laguntza honetan urteko prima bat emango da mendi bakoitzean definitutako mendi larreen azalerako hektarea bakoitzeko.



Laguntzaren zenbatekoa taula honetan jasotakoaren arabera zehaztuko da:

	PRIMA EURO/HA
Ganadua mendiko larreetara eramateagatik eta arreta emateagatik	65
Egin beharreko laboreengatik	51

#### A.4.5 Dokumentazio berezia

Laboreetarako laguntzaren kasuan soilik, egindako inbertsioaren ziurtagiriak aurkeztu behar dira, laguntza ordaindu baino lehen. Lan horiek norbere bitartekoekin egitea onartuko da, onuradunaren adierazpen arduratsuaren bitartez, eta Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 7ko 45/2016 Foru Dekretuan jasotako moduluekin bat etorritik. Foru dekretu horrek, EAEko Landa Garapeneko 2015-2020ko Programaren esparruan, Basoko Laguntzen Planaren oinarri arautzaileak eta 2016. urterako deialdia onartu zituen.

B. M.11 neurria. Nekazaritza ekologikoa

B.1 M11.1 azpineurria. Nekazaritza ekologikora bihurtzea

B.1.1 Helburua

Eragiketa honen helburua EAEn nekazaritza ekoizpen ekologikoaren jardunbidera eta metodoetara bihurtzea da, Europar Batasunaren araudian eta hura garatzen duen araudi autonomikoan ezarritakoarekin bat etorritik.

B.1.2 Konpromisoak

B.1.2.1 Onuradunenak:

Onuradunak, laguntza jasotzen duen aldian, konpromiso hauek bete beharko ditu:

- Konprometitutako azalerak urtero mantentzea
- Konpromiso baztertzailak:

Nekazaritza ekoizpen ekologikoari buruz dagoen eta nekazaritza ekologikoko ekoizle bihurtzeko aldiei aplikagarri zaien araudia betetzea. Ekintza hau zorrotza da ekoizpen baldintzei eta haiek betetzen diren ala ez kontrolatzeko mekanismoei dagokienez. Hona hemen indarrean dagoen araudia:

- EBan:

- Kontseiluaren 834/2007 Arautegia (EE), 2007ko ekainaren 28koa, produktu ekologikoak ekoizteari eta etiketatzeari buruzkoa, 2092/91 Arautegia (EEE) indargabetzen duena. Kontseiluaren 2008ko irailaren 29ko 967/2008 Arautegiaren bidez aldatua.

- Batzordearen 889/2008 Arautegia (EE), 2008ko irailaren 5koa, Kontseiluaren 834/2007 Arautegiko (EE) aplikatu beharreko xedapenak ezarri zituen.

- EAEan:

- Irailaren 24ko 229/1996 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan nekazaritza ekologikoko ekoizpena, egitea eta merkaturatzea arautzen duena eta Nekazaritza Ekologikoko Ekoizpenaren Euskal Kontseilua sortzen duena. Dekretu hau zati batean indargabetu du Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren abenduaren 29ko 10/2006 Legeak.

B.1.2.2 Konprometitutako azalerenak:

- Hasieran konprometitutako azalera urtero handitu ahalko da. Gehikuntza hau diruz laguntzen bada, konprometitutako azalera berria sinatutako nekazaritza eta ingurumeneko kontratuaren indarraldia amaitu arte mantendu beharko da.

- Bihurketa aldia amaitzearen ondorio diren azalera gutxipenak baimenduko dira.
- Bihurketa aldia amaitzea gorabehera, konpromisoaren aldi osoan, konprometitutako gehieneko azalaren ehuneko 10, gehienez, gutxitzea baimenduko da.
- Konprometitutako azalera nekazaritza ekologikora bihurtzen diren labore taldeen multzoari elkartuta egongo da.

Konpromisoen iraupena:

- Gehieneko iraupena 3 urte da.
- Iraupena ekoizpen mota bakoitzeko bihurketa aldi espezifikoeekin bat etorri behar da, araudian ezarritakoarekin arabera.

### B.1.3 Onargarritasuneko baldintza espezifikoak

#### B.1.3.1 Onuradunenak

- Nekazari aktiboak izatea, 1307/2013 Arautegiaren (EB) 9. artikularen zentzuan.
- Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoen Kontseiluko (ENEK) Operadoreen Erregistroan izena emanda egotea laguntza eskatzeko epea amaitzen den egunean.
- Ustiatzearen gutxienez azalera hau edukitzea: Ortuarien 1.000 m<sup>2</sup>ko labore ekologikoak edo 5.000 m<sup>2</sup>ko labore ekologikoak.

#### B.1.3.2. Konprometitutako azalerenak:

- Laguntza jasotzen duen azalera nekazaritzako azalera izan behar da, 1305/2013 Arautegiaren (EB) 2.1.f) artikulua definitzen duenez.
- Lurzatiak ENEK-en kontrol sisteman egon behar dira inskribatuta, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean ekoizpen ekologikoa ziurtatzeko. Urteko laboreen kasuan, laguntza eskatzen den labore zikloaren hasieratik egon behar dira izena emanda.
- Gainera, ardogintzarako mahastiaren kasuan, lurzatiak Arabako Txakolina jatorri deiturako mahastien erregistroan edo Errioxa jatorri deiturako mahastien erregistroan izena emanda egon behar dira, baita Arabako Mahastizaintzaren Erregistroan ere.
- Zurezko laboreen lurzatiek landaketa erregular homogeneoak eduki behar dituzte; ez da onartuko lerrokatzerik ez txertaka isolaturik.
- Laboreen lurzatiek laboreetan ereite erregular eta homogeneoak eduki behar dituzte.
- Ez zaie laguntzarik emango 'zuhaxkak dituzten larreei', 'zuhaitzak dituzten larreei' ez 'larretarako mendiei'.
- Ez zaie laguntzarik emango abeltzaintzek partekatzen dituzten herri larreetan dauden larreei.

#### B.1.4 Laguntzen zenbatekoa

Laguntza nekazaritzarako azalera hektarea bakoitzeko urtero ematen den prima bat da, nekazaritza ekologikora bihurtzen diren labore taldeen arabera, taula hau kontuan izanik. Estali gabeko baratzezaintzak ustiatze batean 2 ha baino gehiago hartzen baditu, hori gainditzen duen azalera labore handiko baratzezaintza izango da.

LABORE TALDEAK	PRIMA EURO/HA	AZIENDA	PRIMARI EGOTZI BEHARREKO OINARRIA, ABERE EKOIZPENEKO HA BAKOITZEKO (EURO / ALU)
Lugorria / ongarri berdea	121	Hegazti hazkuntza, haragitarako	109
Zereal alea	244	Hegazti hazkuntza, arrautzatarako	75
Bazkak eta proteaginosak*	190	Ahuntzak	63

LABORE TALDEAK	PRIMA EURO/ HA	AZIENDA	PRIMARI EGOTZI BEHARREKO OINARRIA, ABERE EKOIZPENEKO HA BAKOITZEKO (EURO / ALU)
Aletarako lekadunak	311	Ardiak, haragitarako	56
Kontsumoko patata	420	Ardiak, esnetarako	63
Hazitarako patata	482	Zaldiak, haragitarako	32
Industria laboreak	246	Behi esneak	117
Belardi polifita	193	Zaldiak	29
Labore handiko baratzeaintza	496	Txerriak	137
Estali gabeko baratzeaintza	1284		
Negutegiko baratzeaintza	2013		
Fruitu lehorrak	448		
Baratzeaintza	900		
Olibazaintza	300		
Ardogintza, Arabako Txakolina jatorri deitura	900		
Ardogintza, Errioxa jatorri deitura	514		

Abereen ALU bakoitzeko primen batura, ekologikoan, azalera osoaren oinarrizko kopuruari gehituko zaio, modu proportzionalen. Ganaduko prima hau gehienez 2 ALU izango da aipatutako hektarea bakoitzeko. Modu berean, batuketa egindakoan, egiaztatuko da ha bakoitzeko ordainketak ez duela gainditzen hektarea bakoitzeko ezarritako gehienekoa.

#### B.1.5 Dokumentazio espezifikoa.

Laguntza eskaerari, 17. artikuluan aipatzen den dokumentazio orokorraz gain, ondokoak erantsi beharko zaizkio:

- Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluko (ENEEK) Operadoreen Erregistroan izena emanda egotearen ziurtagiria.

- Laguntza jasotzen duten lurzatiak ekoizpen ekologikoa ziurtatzeko ENEEKen kontrol sisteman izena emanda daudela frogatzen duen ziurtagiria. Urteko laboreen kasuan, laguntza eskatzen den labore zikloaren hasieratik egon behar dira izena emanda.

- Gainera, ardogintzarako mahastiaren kasuan, laguntza jasotzen duten lurzatiak Arabako Txakolina jatorri deiturako mahastien erregistroan edo Errioxa jatorri deiturako mahastien erregistroan izena emanda daudela frogatu behar da, baita Arabako Mahastizaintzaren Erregistroan ere.

#### B.2 M11.2 azpineuria. Nekazaritza ekologikoa mantentzea

##### B.2.1 Helburua

Neurri honen helburua EAEn nekazaritzako ekoizpen ekologikoaren jardunbideak eta metodoak mantentzearen sustapena da, Europar Batasunaren araudian eta hura garatzen duen araudi autonomikoan ezarritakoarekin bat etorritz.

##### B.2.2 Konpromisoak

###### B.2.2.1 Onuradunenak

Onuradunak, laguntzaren nekazaritza eta ingurumeneko kontratua indarrean dagoen aldian, konpromiso hauek bete beharko ditu:

– Konprometitutako azalerak urtero mantentzea

– Konpromiso baztertzailleak:

Nekazaritza ekoizpen ekologikoari buruz dagoen araudia betetzea. Ekintza hau zorrotza da ekoizpen baldintzei eta haiek betetzen diren ala ez kontrolatzeko mekanismoei dagokionez. Hona hemen indarrean dagoen araudia:

- EBan:

· Kontseiluaren 834/2007 Arautegia (EE), 2007ko ekainaren 28koa, produktu ekologikoak ekoizteari eta etiketatzeari buruzkoa, 2092/91 Arautegia (EEE) indargabetzen duena. Kontseiluaren 2008ko irailaren 29ko 967/2008 Arautegiaren bidez aldatua.

· Batzordearen 889/2008 Arautegia (EE), 2008ko irailaren 5koa, Kontseiluaren 834/2007 Arautegiko (EE) aplikatu beharreko xedapenak ezarri zituen.

- EAEan:

· Irailaren 24ko 229/1996 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan nekazaritza ekologikoko ekoizpena, egitea eta merkaturatzea arautzen duena eta Nekazaritza Ekologikoko Ekoizpenaren Euskal Kontseilua sortzen duena. Dekretu hau zati batean indargabetu du Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren abenduaren 29ko 10/2006 Legeak.

B.2.2.2 Konprometitutako azalerenak:

- Hasieran konprometitutako azalera urtero handitu ahalko da. Gehikuntza hau diruz laguntzen bada, konprometitutako azalera berria sinatutako nekazaritza eta ingurumeneko kontratuaren indarraldia amaitu arte mantendu beharko da.

- Konpromisoaren aldiaren gehienez ehuneko 10eko gutxipena onartuko da konprometitutako azalerari dagokionez.

- Konprometitutako azalera nekazaritza ekologikoko labore taldeen multzoari elkartuta egongo da.

B.2.2.3 Konpromisoaren iraupena:

- Gehieneko iraupena 5 urte da. Bi egoera bereizten dira:

· Nekazaritza ekologikorako bihurketa azpineurriko (M11.1.) konpromisoaren ondoren berehala hartu diren konpromiso berriak badira, iraupena guztira 5 urte bete arte izango da.

· Mantentzea (M11.2.) azpineurriko konpromisoak bakarrik badira, iraupena 5 urtekoa izango da.

- Mantentze konpromisoaren hasierako aldia amaitutakoan, urteko luzapenak egin ahalko dira.

B.2.3 Onargarritasuneko baldintza espezifikoak

B.2.3.1 Onuradunenak:

- Nekazari aktiboak izatea, 1307/2013 Arautegiaren (EB) 9. artikularen zentzuan.

- Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluko (ENEK) Operadoreen Erregistroan izena emanda egotea laguntza eskatzeko epea amaitzen den egunean.

- Ustiatzearen gutxienez azalera hau edukitzea: Ortuari 1.000 m<sup>2</sup>ko labore ekologikoak edo 5.000 m<sup>2</sup>ko labore ekologikoak.

B.2.3.2 Azalerenak

- Azalera nekazaritzakoa izan behar da, 1305/2013 Arautegiaren (EB) 2.1.f) artikulua definitzen duenez.

- Lurzatiak ENEEken kontrol sisteman egon behar dira inskribatuta, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean ekoizpen ekologikoa ziurtatzeko. Urteko laboreen kasuan, laguntza eskatzen den labore zikloaren hasieratik egon behar dira izena emanda.

- Gainera, ardogintzarako mahastiaren kasuan, lurzatiak Arabako Txakolina jatorri deiturako mahastien erregistroan edo Errioxa jatorri deiturako mahastien erregistroan izena emanda egon behar dira, baita Arabako Mahastizaintzaren Erregistroan ere.

- Zurezko laboreen lurzatiek landaketa erregular homogeneoak eduki behar dituzte; ez da onartuko lerrokatzerik ez txertaka isolaturik.

- Laboreen lurzatiek laboreetan ereite erregular eta homogeneoak eduki behar dituzte.

- Ez zaie laguntzarik emango 'zuhaxkak dituzten larreei', 'zuhaitzak dituzten larreei' ez 'larretarako mendiei'.

- Ez zaie laguntzarik emango abeltzaintzek partekatzen dituzten herri larreetan dauden larreei.

#### B.2.4 Laguntzaren zenbatekoa

Laguntza nekazaritzarako azalerako hektarea bakoitzeko urtero ematen den prima bat da, nekazaritza ekologikoko labore taldeen arabera, taula hau kontuan izanik. Estali gabeko baratzezaintzak ustiategi batean 2 ha baino gehiago hartzen baditu, hori gainditzen duen azalera labore handiko baratzezaintza izango da.

LABORE TALDEA	PRIMA EURO/HA	AZIENDA	PRIMARI EGOTZI BEHARREKO OINARRIA, ABERE EKOIZPENEN HA BAKOITZEKO (EURO / ALU)
Lugorria / ongarrri berdea	121	Hegazti hazkuntza, haragitarako	93
Zereal alea	222	Hegazti hazkuntza, arrautzatarako	69
Bazkak eta proteaginosak	168	Ahuntzak	56
Aletarako lekadunak	253	Ardiak, haragitarako	51
Kontsumoko patata	348	Ardiak, esnetarako	56
Hazitarako patata	361	Zaldiak, haragitarako	26
Industria laboreak	224	Behi esneak	103
Belardi polifita	193	Zaldiak	26
Labore handiko baratzezaintza	388	Txerriak	127
Estali gabeko baratzezaintza	923		
Negutegiko baratzezaintza	1561		
Fruitu lehorrak	372		
Baratzezaintza	900		
Olibazaintza	229		
Ardogintza, Arabako Txakolina jatorri deitura	900		
Ardogintza, Errioxa jatorri deitura	440		

Abereen ALU bakoitzeko primen batura, ekologikoan, azalera osoaren oinarrizko kopuruari gehituko zaio, modu proportzionalan. Ganaduko prima hau gehienez 2 ALU izango da aipatutako hektarea bakoitzeko. Modu berean, batuketa egindakoan, egiaztatuko da ha bakoitzeko ordainketak ez duela gainditzen hektarea bakoitzeko ezarritako gehienekoa.

**B.2.5 Dokumentazio espezifikoa**

Laguntza eskaerari, 17. artikuluan aipatzen den dokumentazio orokorraz gain, ondokoak erantsi beharko zaizkio:

- Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluko (ENEEK) Operadoreen Erregistroan izena emanda egotearen ziurtagiria.

- Laguntza jasotzen duten lurzatiak ekoizpen ekologikoa ziurtatzeko ENEEKen kontrol sisteman izena emanda daudela frogatzen duen ziurtagiria. Urteko laboreen kasuan, laguntza eskatzen den labore zikloaren hasieratik egon behar dira izena emanda.

- Gainera, ardogintzarako mahastiaren kasuan, laguntza jasotzen duten lurzatiak Arabako Txakolina jatorri deiturako mahastien erregistroan edo Errioxa jatorri deiturako mahastien erregistroan izena emanda daudela frogatu behar da, baita Arabako Mahastizaintzaren Erregistroan ere.

**II. ERANSKINA****DEFINIZIOAK**

ALU: azienda larriko unitatea. Abere zama hori kalkulatzeko, dekretu honetako laguntza guztien ondorioetarako, baliokidetasun taula hau erabiliko da:

ANIMALI MOTAK	ALU KOPURUA
Zezenak, behiak eta bi urte baino gehiago duten bestelako behi aziendak	1,0 ALU
Sei hilabete baino gehiagoko ekidoak	1,0 ALU
Sei hilabete eta bi urte bitarteko behi azienda	0,6 ALU
Sei hilabete baino gutxiagoko behi azienda	0,4 ALU
Ardiak	0,15 ALU
Ahuntzak	0,15 ALU
Hazteko txerria, 50 kg baino gehiagokoa	0,5 ALU
Bestelako txerri azienda	0,3 ALU
Oilo erruleak	0,014 ALU
Oilategiko bestelako hegaztiak	0,03 ALU

Ustiategiko abere zama: Hori kalkulatzeko, ustiategiko ALUak (azienda larriko unitateak) eskaera bakarrean orotara adierazitako bazka azalera zatitu beharko da. Abere zama finkatzeko ALUak eskaera urtearen aurreko urteko irailaren 1etik eskaera urteko abuztuaren 31ra arte abere ustiategien erregistroan izena emanda dauden animalien batezbestekoa egitetik ateratzen direnak izango dira.

NMEK: Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legeak nekazaritza ustiapen modura sailkatzeko ezartzen dituen betebeharrak betetzen dituen kooperatiba. Haren xedea da nekazaritzarako erabiliko diren makina edo ekipamenduak erosi eta batera erabiltzea.

ENS edo Eraldaketarako Nekazaritza Sozietateak: helburu ekonomiko eta sozialak dituzten sozietate zibilak, nekazaritzako eta abeltzaintzako produktuak ekoiztu, eraldatu eta merkaturatzeko.

Eskaera bakarra: zuzeneko ordainketa araubideetarako laguntza komunaren eskaera, azaleraren arabera eta KKSIn barruan sartutako neurrien arabera, betiere Batzordearen 2014ko martxoaren 11ko 807/2014 (EB) Arautegi Ordezkatuak ezarritakoarekin bat etorritz; arautegi horrek

osetzen du Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1305/2013 (EB) Arautegia, Batasunaren nekazaritza politikaren finantzazio, kudeaketa eta jarraipenarena.

Nekazaritza azalera: laborantza lur, larre iraunkor, larre iraunkor edo laborantza iraunkor gisa erabiltzen diren azalerak, betiere 1307/2013 (EB) Arautegiak 4. artikuluan definitutakoaren arabera.

Azalera onargarria: eskaera bakarrean ordainketetarako adierazitako azalerak, baldin eta onargarritasun irizpideak betetzen baditu, betiere Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1307/2013 (EB) Arautegiak 1. kapituluaren III. tituluaren ezarritako Oinarrizko Ordainketa Araubideari (OOA) dagokionez, eta 4.2. artikuluan eta 1075/2014 Errege Dekretuak 11. artikuluan eta IV. eranskinean ezarritako nekazaritza jardueraren mantentze lana barne, betiere Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1307/2013 (EB) Arautegiaren 4.1.c) artikuluari dagokionez.